

LUA

Legorretako Udal Aldizkaria

2016ko Uztaila _ 12. zenbakia

2 Aurrez Aurre
Iban Zunzunegi
Eli Zunzunegi

4 Udal Langileak

5 Udalekuak

6 Partaidetza

8 Uema

9 Gure Esku Dago

10 Hondakinak

11 Errezeta



AURREZ AURRE



Elkarrizketatzailea: Iban Zunzunegi

Nola gogoratzen duzu lanagatik beste herrialde batera joan behar izatea? Egokitze prozesua gogorra izan zen?

Berez ez nintzen lanagatik etorri, maitasunagatik baizik. Lana gero etorri zen. Egokitzapena oso erraza izan zen. Hizkuntza berehala ikasi nuen, eta horrek asko lagundu zidan. Gainera, Bartzelona hiri zoragarria da. Kanean paseatzea izugarri gustatzen zait, eta hain toki txikian mendia eta itsasoa gotea izugarria da.

Ze hizkuntza edo hizkuntzak erabiltzen dituzue etxean? Katalana.

Kazetaritzaren lanbideak duen erromantizismoa mantentzen duzu?, edo aspaldi galdu zenuen?

Ez, oraindik mantentzen dut. Kazetaritza gauzak aldatzeko tresna da niretzat, injustiziak salatzeko, jendeak egiten dituen ekimen mirezgarriak ezagutzera emateko, etxean lasai-lasai eserita telebista ikusten ari den pertsonaren kontzientzia astintzeko. Horretan sinesten jarraitzen dut, eta horregatik oraindik asko disfrutatzen dut lanarekin. Askotan esaten dut kobratu orde ordaindu egin beharko nukeela lan zoragarri hau egiteko aukera izateagatik.

Kazetari bezala lan egiten kontatu behar izan duzun gus-tuko gertakari bat eta gertakari gogor bat?

Duela lauzpabost urte Badalonako auzo marjinal bateko eskola batek martxan jarri zuen absentismoaren aurkako ekimen bitxi bat. Auzoko ume asko eta asko ez ziren joaten eskolara, absentismo izugarri altua zuten, eta, hori ekidite-

ko, 'Despertador escolar' izeneko ekimena jarri zuten mar-txan. Gizarte langile bat egunero joaten zen eskolara goize-ko bederatzietan, eta ze ume falta ziren ikusten zuen; gero, haurren etxeetara joaten zen, eta eskolara ekartzen zituen. Oso interesgarria iruditu zitzaidan. Hezkuntza da etorkizun duina izateko tresna hoberena, eta auzo marjinal horretan bakarren batzuk oso kontziente ziren horretaz.

Bestalde, gertakari gogor askoren berri eman behar izan dut, istripuen berri batez ere, baina bi dira bereziki gogo-ratzen ditudanak. Bata, Afganistan eta Pakistanen euren aita edo senarrek aurpegia eta gorputza azidoarekin erretako emakumeen inguruan egin zen erakusketa bat, eta bestea, Reuseko familia bati egin zioten lapurreta. Etxean zeudela lapurrak sartu eta sekulako jipoia eman zieten dirua non zuten jakiteko. Geroztik horrelako kasu asko izan dira, baina hura lehenetakoa izan zen, eta familiako emakumea begia hazita zuela elkarrizketatzen ari nintzela, lehenengo aldiz malkoak atera zitzaizkidan elkarrizketa egiten ari nintzen bitartean.

TV3en kate guztiak katalanez dira, ETBn kate guztiak euskaraz izan beharko lirateke?

Ez, katalanaren egoera eta euskararena ez dira parekoak. Hemen ia jende guztiak daki katalanez, eta ez dakitenak ulertzeko gai izaten dira. Horrek asko errazten du hizkuntza-rekiko jarrera. Euskararen egoera beste bat da. Eta une honetan beharrezkoa iruditzen zait gaztelaniazko katea izatea. Iruditzen zait, ordea, euskaraz egiten diren kateek baliabide gehiago izan behar lituzketela. TV3ek, adibidez, ume eta

Elkarrizketatua:

Eli Zunzunegi

gazteentzako egunero informatibo bat dute; haiek ulertze-ko moduan azaltzen dituzte eguneko albisteak, eta sekulako arrakasta du. Telebistaz aparte gauza gehiago egin beharko lirateke euskaraz ume eta gazteentzat. Antzerkia, adibidez. Katalunian antzerki asko egiten da umeentzat. Hala ere, hemen ere zailtasunak dituzte gazteak katalanezko kateetara erakartzeko.

KATE MOTZEAN

Musika talde bat?

Txarango

Janari bat?

Txerri hankak

Liburu bat?

'A sangre fría', Truman Capote

Film bat?

Intocable, Erix Toledano eta Oliver Nakacherena.

Pertsonaia bat?

Frida Khalo





UDAL LANGILEAK

Bi langile kontratu dira hiru hilabeterako, herriko zenbait lan egiteko: Pili de Paz eta Josetxo Garin. Langileen lan poltsa bat osatua du udalak, eta horien artean egin zen zozketa. Ekainean hasi ziren lanean, eta irail hasiera arte arituko dira. Lehenik, herri bideak garbitzen ibili dira. Horretarako, ba-

serritarrekin bildu zen udala aurrez, haien beharrak zein diren jakiteko.

Horrez gain, lan hori bukatu ondoren, zerbrabideak eta bestelako seinaleak margotuko dituzte, eta gero etorriko dira bestelako lan txikiagoak: bankuak konpondu,

lorontziak, arrautzak eta farolak txukundu...

Zerbaiten premia ikusten baduzue, jo lasai udaletxera, oraintxe da garaia eta. Eskerrik asko!

El ayuntamiento ha contratado dos trabajadores (Pili de Paz y Josetxo Garin) para los siguientes tres meses para realizar algunos trabajos en el pueblo. La contratación se ha hecho teniendo en cuenta la bolsa de trabajo que convocó el ayuntamiento y los trabajos a

realizar se han detallado teniendo en cuenta las necesidades de los baserritarras del pueblo después de reunirse con ellos y conocer éstos personalmente.

Además de esos trabajos, se pintarán los pasos de cebra y otras señales, se

pondrán a punto los bancos, las farolas...

Si alguien tuviera otra propuesta de trabajo agradeceríamos se acercaran al ayuntamiento para dar esa información.

UDALEKU IREKIAK 2016



Aurtengo udalekuetan, 106 ume da-biltza, eta horiekin batera, bederatzire begirale. Ekainaren 27an hasi ziren, eta uztailaren 29a izango dute azken eguna. Egitarau bete-betea osatu dute begiraleek, haur guztien gozagarri.

Herrian bertan egingo dituzten ekintzez gain, zenbait irteera ere antolatatu dituzte. 3, 4 eta 5. mailakoekin egitekoak dituzte, esaterako, mendi irteera, bizikleta eguna eta Ordiziako azokarako irteera. Denen artean egitekoak, berriz, hauexek: Aramara joango dira egun batean, Txiki Parkera beste batean, eta igerilekura ere bai beste egun batean.

Ostiralak, bestalde, egun bereziak izango dira: Euskal Eguna, San Fermin eguna, Uraren Eguna, Zikinaren Eguna eta Piraten Eguna egingo dituzte. Udalekuak amaitzeko, berriz, jaialdia egingo dute. Esan bezala, uztailaren 29an.

Este año se han apuntado 106 niños y niñas en los campamentos; para atenderlos el ayuntamiento ha contratado a 9 monitores. Comenzaron el 27 de junio y terminarán el 29 de julio. Entre las actividades que realizarán podemos citar: visita al mercado de Ordizia y Arama, excursiones al monte y a la piscina, el día de la bicicleta...

PARTAIDETZA

Legorretako Partaidetza Sistema finkatu du Udalak herritar eta udal langileekin elkarlanean. Hausnarketa prozesu bat egin da, Legorretan herritarren parte hartzeko ereduak nolakoa izan behar duen zehazteko, parte hartzeaz gogoeta egiteko, eta partaidetzaren ikuspegia zabaldu, aberastu eta osatzeko. Prozesu honen emaitza nagusia partaidetza ordenantza izango da.

Lehen saioa udaleko zinegotzi eta langileen artean izan zen;

gero, beste bi saio izan ziren zinegotzi, langile eta herritarren artean; ondoren, bi asteko tartearen artean Internet bidez ekarpenak egin ahal izateko, eta azken saioan borobildu da sistema bera.

Prozesua Elhuyar Aholkularitzak gidatu du, eta orain ordenantza idatziko dute, saioetan adostutakoarekin. Sistema bera zazpi ataletan banatu da:



- 1- **Legorretako partaidetzaren inguruan.** Gogoeta bat egin da herritarrek parte hartzeko duten joeraren inguruan.
- 2- **Sistemaren inguruan.** Hauexek dira ezaugarri nagusiak: erraza izan behar duela, irekia, herritarrek erabakitzeko ahalmena izan behar duela eta garbi adierazi behar dela mugak non dauden.
- 3- **Sistemaren subjektuak.** Legorretarra izango da subjektua, eta eskubideak zein betebeharrak izango ditu.
- 4- **Elkarteak eta herritar taldeak.** Eragile parte-hartzaile asko daude herrian, eta oso garrantzitsuak dira. Horiek ere eskubideak eta betebeharrak dituzte.
- 5- **Herritarrek parte hartzeko prozesuak, organoak eta mekanismoak.** Partaidetza prozesu bat da herritarra eremu publikoan, sormen eta erabaki guneetan, subjektu aktibo egin duen tresna. Inklusiboa izan behar du. Mugak ere definitu behar dira; alegia, noraino iristen den herritarren hitza. Horretarako baliabideak emango ditu udalak.
- 6- **Udala:** informaziorako, arretarako eta komunikaziorako sistemak. Hurbilekoa izan behar du, irekia, gardena.
- 7- **Bestelakoak.**

Irailean izango da ordenantzaren aurkezpena. Mila esker parte hartu duzen guztioi!



El Ayuntamiento acaba de programar su Sistema de Participación junto con los vecinos y los trabajadores municipales. Se ha llevado a cabo un proceso de reflexión en torno a los modelos de participación del pueblo, definir cómo debería de ser éste, para ahondar, ampliar, enriquecer y completar su concepto. Este proceso ha sido liderado por Elhuyar Aholkularitza y el resultado será la ordenanza de participación que redactará esta organización teniendo en cuenta lo acordado en las reuniones que se han realizado.

Siete son los puntos que se han tenido en cuenta en este proceso:

- 1.- Reflexión en relación a la participación en Legorreta.
- 2.- Plantear cómo debería de ser el Sistema de Participación.
- 3.- Los sujetos que participan.
- 4.- Los grupos y asociaciones de Legorreta.
- 5.- Procesos de participación, órganos y mecanismos.
- 6.- El papel del Ayuntamiento.
- 7.- Otros.

En septiembre se hará la presentación de la ordenanza. Gracias a todos por participar!

UEMA

Apirilaren 21eko osoko bilkuran onartu zen Legorreta Uema Udal-erri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko eskaria egitea; eta, hala, mankomunitateak maiatzaren 28an Leitzan egin zuen batzarran onartu zuen eskari hori.

Arnasguneak indar handia hartzen ari dira azken urteetan euskalgintzan. Eta inork ez du dudan jarriko euskararentzat berebiziko garrantzia dutela. Euskarak ezinbesteko ditu nagusi izango den eremuak, arnasa sendo hartuko duen herriak. Eta garrantzia du arnagune izateak guretzat ere, gure herriarentzat. Euskara osasuntsu egotea gure herria ere osasuntsu egotea delako, azken finean.

Kezka batzuk zabaldu zaizkigu azken urteetan: euskaraz dakiten herritarren portzentajea jaitsi egin zaigu 2001etik, euskara lehen hizkuntza dutenak ere gutxiago dira, eta etxeko erabileran ere jaitsiera handia izan dugu, hogeai puntukoa.

Egia da lan handia egin dela udala euskalduntzen baina, bitarte horretan, herria erdaldundu zaigu. Eskolan bertan ere kezka handia dute; 2015-2016ko ikasturtean euskara talde bat sortu dute irakasleek, eta gogoeta egitea izan dute lehen egitekoa. Datoren ikasturtetik aurrera, berriz, lanean hasiko dira, euskararen egoera hobetu ahal izateko.



El 21 de abril el Pleno acordó que Legorreta formara parte de Uema (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea); así pues, el 28 de mayo, la mancomunidad aprobó esa petición en la reunión llevada a cabo en Leitza.

Esta idea partió de la preocupación ante los datos sobre la utilización del euskera en Legorreta. El porcentaje de vecinos que saben hablar euskera ha bajado desde 2001 y son menos aquellos que tienen el euskera como lengua materna. Su utilización en el ámbito fami-

liar también ha bajado en 20 puntos. Esta preocupación también la comparten desde el ámbito escolar, y, desde el curso 2015-2016 los profesores han creado un grupo de trabajo para llevar a cabo una profunda reflexión en torno a este tema.

Con esta incorporación en Uema, el Ayuntamiento pretende organizar y trabajar para ampliar el ámbito de utilización del euskera tanto en el ámbito escolar, en el comercio, en la transmisión...

Con esta incorporación en Uema, el Ayuntamiento pretende organizar y trabajar para ampliar el ámbito de utilización del euskera tanto en el ámbito escolar, en el comercio, en la transmisión...



GURE ESKU DAGO

Ekainaren 5eko herri galdeketa

Dakizuen bezala, aurreko ekainaren 5ean, legorretarrok, Goierriko beste 22 herriekin batera, gure etorkizunaren inguruan erabakitze aukera izan genuen. "Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?" galderari erantzuteko parada herritar askok aprobetxatu zuten. Goizeko bederatzietan hasi eta iluntzeko zortziak arte 468 pertsonak eman zuten botoa. Horietatik 440 baiezkoren aldekoak eta 18 ezezkoaren aldekoak izan ziren. 5 boto zurik eta beste 5 baliogabek osatu zuten kontaketa.

Hala ere, Legorretako Gure Esku Dago zifratatik haratago doa. Gure ustetan, zifra horiek baino gehiago balio izan du honaino iristeko bizi izandako prozesuak. Izan ere, ekainaren 5ean plaza inguruan bizi eta sentitutako giroa ezin da zifra batez kalifikatu. Jai giroa nagusitu zen, nahiz eta batzuek majo lan egin behar izan.

El pasado 5 de junio se llevó a cabo la consulta impulsada por la plataforma Gure Esku Dago con la pregunta: ¿Desea ser ciudadano de un estado vasco soberano? En ella participaron 468 vecinos. El resultado: 440 a favor, 18 en contra, 5 en blanco, 5 nulos.

Legorretako Gure Esku Dago hace una muy positiva valoración de la consulta no sólo por la cantidad de vecinos que participaron sino también por el ambiente festivo que se vivió durante todo el día. "El camino no ha hecho más que comenzar y esperamos recoger pronto lo sembrado ese día. No perdamos la ocasión. Entre todos lo conseguiremos", dicen esperanzados desde la organización.

Prozesu honen leloak dioen bezala (Elkarrekin), guztien artean egun arrakastatsu bat izatea lortu genuen. Mahaian ordu luzez egondakoak, herritarren segurtasuna bermatu zutenak, eguerdi aldean gure sabela betetzeko bazkaria antolatu eta zerbitzatu zenuten guztiak, Otsein musika taldeko gazteak... zerrenda amaigabe bat idatz genezakeen. Hemen-dik, eskerrak eman boluntario jardun zenuten guztioi, zuek gabe ezinezkoa izango baitzen hau guztia. Botoa ema-

tera etorritako herritarrak ere zoriondu eta eskertu nahi ditugu.

Badakigu bidea hasi besterik ez dela egin, baina galdeketa egunean ereindako haziak bere fruituak emango dituelakoan gaude, eta ez nolanhikoak gainera. Gure Esku Dago fruitu horiei behar bezalako zukua ateratzea. Ez dezagun aukera gal, guztiok Elkarrekin lortuko dugu!

Legorretako Gure Esku Dago.



HONDAKINAK BILTZEKO SISTEMA ADOSTEKO PROZESUA

PROCESO PARA ACORDAR UN SISTEMA DE RECOGIDA DE RESIDUOS

2015eko azaroan, Legorretako Udaleko bi alderdiek, EH Bilduk eta EAJk, bilera bat egin zuten herrian hondakinak gaika biltzeko sistema bat adosteko asmoz. Lehen bilera horretan, helburua izan zen ikustea ea oinarririk bazegoen halako prozesu bat martxan jartzeko. Hala, bi alderdiak bat etorri ziren beharrezkoa dela hondakinak gaika sailkatzea, ez dela aukerakoa; hain zuzen, herritar guztion betebeharra dela, denon konpromisoa. Hori ikusirik, prozesu bat martxan jartzea erabaki genuen.

Urtarrilean izan zen bigarren bilera. Bilera hartan, Sasieta eskualdean dituen sistema ezberdinak aztertzen aritu ginen, eta beharrezkoa ikusi genuen Sasieta txosten bat eskatzea jakiteko Legorretan egungo sistema aldatzeak zein emaitza eta gastu ekonomiko izango lituzkeen - konparazioa eginda Sasieta gainontze-ko sistemekin-.

Txosten hori jasota, hainbat bilera egin ditugu, bai gure artean eta bai Sasieta gerentarekin ere, zalantzak argitu ahal izateko. Gaur egun, dau den aukerak aztertzen ari gara, eta aurrekontu batzuen zain gaude; horiek eskuetan izanik Legorretarentzako sistema egokiena adostea izango da gure helburua. Hori lortuta, galdeketa egiteko galdera adostuko dugu, eta, hala, herriari galdetuko diogu uda ondoren.

En noviembre de 2015, los dos partidos presentes en el Ayuntamiento, EH Bildu y EAJ, se reunieron para acordar un sistema de recogida de residuos. El objetivo en esa primera reunión era observar si había suficiente base para poner un proceso de tal envergadura. Así pues, las dos partes piensan en la obligatoriedad de los ciudadanos a llevar a cabo la selección de residuos, en trabajar en esa línea; y poner en marcha un proceso.

En enero se llevó a cabo la segunda reunión. En ella, se analizaron todos los diferentes sistemas de recogida que tiene en funcionamiento Sasieta en la comarca, y, en ese sentido, se pidió a Sasieta que realizara un estudio que ayudara valorar tanto los resultados que pueden provenir de un cambio de sistema como los gastos económicos que derivarían de la misma -siempre en comparación con otros sistemas de Sasieta-.



Con el informe de Sasieta entre las manos, se han llevado a cabo diferentes reuniones bien entre los partidos políticos bien con Sasieta para poder aclarar dudas que se nos planteaban. Hoy en día, seguimos estudiando las diferentes opciones que se ofrecen y a la espera de algunos presupuestos. Una vez recibidos, nuestro objetivo será elegir el mejor sistema para Legorreta. Y, conseguido el objetivo, acordar la pregunta para llevar a cabo una consulta después de la temporada estival.

ERREZETA

Asier Etxabe Larrarte

SALMOREJOA

Denbora: Ordu bat

Zailtasuna: Erraza

Plater mota: Zopa hotza

4-6 pertsonarentzat

OSAGAIAK

- Tomate gorria kilo bat.
- Ogia 200 g
- Olioa 200 g
- Ura 100 g
- Baratzuria 2 ale
- Gatza / urdaiazpikoa



NOLA PRESTATU:

Lehenbizi, ogia eta ura ontzi batean jarriko ditugu minututxo batez. Ondoren, tomatea, baratzuria eta gatza gehituko dizkiogu, eta bati-dorarekin txiki-txiki egin. Dena ondo txikituta dagoenean, txino bate-tik pasako dugu, gera daitezkeen hazi edo puskak kentzeko. Azkenik, olio gehituko diogu. Olio pixkanaka eta batidorarekin nahastuz gehituko diogu (maionesa bat izango balitz bezala). Bukatzeko, hozkailuan sartuko dugu gau oso batez. Zerbitzatzeko garaian gainetik urdaiazpiko pixka bat txiki-txiki eginda bota diezaiogegu.

Uda garairako oso plater freskagarria da.

On egin!



Udaleku garaia izan ohi da uztaila Legorretan, bai orain eta bai lehen ere. Begiraleekin batera ederki pasatzeko garaia. Argazkian, 1986, 1987, 1988, 1989 urte inguruko neska-mutilak ageri dira, aurpegia zikin-zikin dutela. Ezagutzen dituzue?